

25. TXALAPARTA FESTA

EGITARUA

Maiatzak 15, igandea. 10:00, Sausta ondoko Lasarteko Buenos Aires Aldapa behealdeko errotondan elkartuz; **Ibilaldia, txalapartari historikoen etxeetan barrena:** Sausta, Barriola-Barkaiztegi, Egaña-txiki, Bilandegi, Erbetegi-Etxeberri. Etxe bakoitzean bertakoek beren familiko txalapartarien historia aurkeztuko dute eta txalaparta saio bat eskainiko dute. Bukatzeko, eguraldi txarra egiten ez badu, denok parte hartzea gonbidatuta gauden festa bat izango dugu (biderako bakoitzak bere otordua eraman beharko du eta bukaerako festarako antolatzaileek meriendatxo bat prestatuko dute. Ekintza honetan parte hartzeko izena eman behar da*).

Maiatzak 17, asteartea. 19:30, Biteri Kultur Etxean: **“Txalaparta Festa 25 urtetan”** Erakusketaren inaugurazioa eta Liburu+DVDaren aurkezpena. Proiekzioak eta musika zuzenean.

Maiatzak 19, osteguna. 19:30, Biteri Kultur Etxean: **txalaparta eta zinea.** Juan Aizpitarteren “Chaluparteo...” (9,22min) eta “Ticzag” (25,24min) laburmetriak. Ticzag proiektzioa zuzeneko musikaz (*sarrera: 5 euro).

Maiatzak 20, ostirala. 19:30, Biteri Kultur Etxean. **Ttakun ttan ttakun** ikuskizuna. Txalaparta, dantza, argiak, irudiak. Musika: Juan Mari Beltran. Ikuskizunaren antolaketa: Mireia Gabilondo. Koreografia: Jon Maya. Irudiak: David Bernués. Argiztapena: Xabier Lozano (*sarrera: 6 euro).

24:00, Kontrakantxa Gaztetxean: **Txalaparta party aparta** txalaparta+disko emanaldia DJ BARRU eta txalapartarien eskutik. Ekitaldi honetan DJBarruk diseinatutako txalaparta elektronikoa estreinatuko da.

Maiatzak 21, larunbata. Ezkiaga pasealekuan (Tilos) **TXALAPARTA FESTA**

11:00: **TXALAPARTA ERROMERIA.** Txalaparta saio libreak.

HERNANI Musika Eskolako Alboka, Dultzaina, Trikitixa eta Txistu taldeak kale bueltan.

14:30: **HERRI BAZKARIA** (bazkari txartela alde aurretik erreserbatu behar da*: 22 euro.)

17:00: **TXALAPARTA JAIALDI NAGUSIA:**

Bertsolariak: Hernaniko Bertso Eskola.

Txalapartariak: Jaialdi honetan jotzeko Txalaparta Festetako aurreko ediziotan parte hartu duten taldeak gonbidatuak izan dira. Antolakuntzak talde bakoitzari Aitor Ruiz de Eguino artista hernaniarra 25. txalaparta Festa ospakizunerako egindako zeramika eta argitaratutako liburu-DVDak emango dizkio.

Txalaparta Festa gunean “txalaparta merkatu txikia” irekia egongo da (diskoak, liburuak, DVD-bideoak, materiala,...)

Oharra: eguraldi txarra egingo balu, larunbateko ekintza guztiak Atsegindegi plaza estalian egingo lirarteke.

Antolatzaileak: HERNANI Musika Eskola Publikoa

HERNANI Musika Eskolako “Ttakun ttan ttakun” taldea

Babeslea: HERNANIKO UDALA

Laguntzaileak: Orona, IrudiArt.com, Aitor R. de Eguino, Herri Musikaren Txokoa.

HERNANI Musika Eskola Publikoa / Ttakun ttan ttakun txalaparta taldea
Atzieta 4 / 20120 Hernani / Tel. 943 337050

(*) Email: jm-beltran@hernani.net / herrimusika@herrimusika.org

25 txalaparta festa HERNANI 1987-2011
MAIATZAK 15-21 BITARTE

Maiatzak 15, Igandea:
10:00: Txalapartari historikoen etxeetan barrena ibilaldia: Sausta, Barriola-Barkaiztegi, Egaña-txiki, Bilandegi, Erbetegi-Etxeberri. (Ekintza honetan parte hartzeko izena eman behar da*).

Maiatzak 17, asteartea:
19:30: “Txalaparta Festa 25 urtetan” Erakusketaren inaugurazioa eta Liburu+DVDaren aurkezpena, Biteri Kultur Etxean.

Maiatzak 19, osteguna:
19:30: Txalaparta eta zinea, Biteri Kultur Etxean. Juan Aizpitarteren “Chaluparteo...” eta “Ticzag” laburmetriak. (*Sarrera: 5 euro).

Maiatzak 20, ostirala:
19:30: Ttakun ttan ttakun ikuskizuna, Biteri Kultur Etxean. (*Sarrera: 6 euro).
24:00: Txalaparta Party Aparta, Kontrakantxa Gaztetxean. Txalaparta+disko emanaldia DJ BARRU eta txalapartarien eskutik. DJ BARRUK diseinatutako txalaparta elektronikoa berriaren aurkezpena.

Maiatzak 21, larunbata:
Ezkiaga pasealekuan (Tilosetan**)

11:00: TXALAPARTA ERROMERIA. Txalaparta saio libreak.
HERNANI Musika Eskolako Alboka, Dultzaina, Trikitixa eta Txistu taldeak kale bueltan. Txalapartaren Merkatu Txikia.

14:30: HERRI BAZKARIA (Bazkari txartela: 22 euro. Aldez aurretik erreserba egin behar da*)

17:00: TXALAPARTA JAIALDI NAGUSIA: Hernaniko Bertso Eskolako Bertsolariak. Txalaparta Festan parte hartutako talde gonbidatuei omenaldia eta ondoren hauen jaoldiak.

HERNANI Musika Eskola Publikoa / Ttakun ttan ttakun txalaparta taldea
Atzieta 4/20120 Hernani /
Tel. 943 337050
(*) Email: jm-beltran@hernani.net
herrimusika@herrimusika.org

(**) Eguraldi txarra egingo balu Atsegindegi plaza estalian.

Antolatzaileak



Babeslea



Laguntzaileak



25. TXALAPARTA FESTA HERNANI, 2011ko maiatzaren 15etik 21era

25. EDIZIOA. ZILARREZKO URTEURRENA 1987-2011

1985-86 ikasturtean martxan jarri zen Hernaniko Udalak sustatutako eta babestutako Musika Eskola Publiko berria. Eskola honek arautu gabe zeuden herri soinu-tresnak ikasteko eskaintza ezarri zuen, horien artean txalaparta. Eskola hau izan zen txalaparta ikasteko aukera eman duen Euskal Herriko lehen musika ikastetxea.

Ikastaroen iraunkortasuna eta iraupena, ikasteko behar zen materiala eta gutxienezko baldintzak betetzen zituzten lokalak eskainiz, Hernaniko Musika Eskolak neurri handi batean egoera normalizatu zuen. Aurreko baldintza betetze horrek metodologia egoki bat osatzeko aukera eman zuen eta pixkanaka ikasbidearen finkatzea, progresioa eta lanerako bide sistematizatu etorri ziren.

Hernaniko Txalaparta Eskolak berehala ekin zion musika eta soinu-tresna honek behar zuen ezagupen, erakustearen eta zabalkundearen aldeko Eskola barruko nahiz kanpoko lan eta ekintzei. Horrela, klasetako egitarau ikasketaz gain, bestelako jardunetan murgildu zen:

- Txalaparta joaldiak Hernani inguruan antolatutako ekitaldi ezberdinetan.
- Guk emandako eta beste eskolek eta taldeek antolatutako Txalaparta Ikastaroen bitartez Hernaniko Eskolaren eredu zabaltzen.
- Txalapartarien Topaketa antolatzen.

25. TXALAPARTA FESTA

Aurtengo edizioarekin gure lehen mende laurdena beteko dugu. Hasieratik egin dugun bidea jarraituz, eta gure zilarrezko urteurrena modu berezian ospatu nahian, egitarau berezia prestatu dugu.

Maiatzaren 15ean gure inguruko txalapartari zaharren etxeak bisitatuko ditugu eta modu horretan urtetan txalapartaren musika entzun den ingurua ezagutuko dugu. Ibilaldia Zuaznabartarren Saustan hasi eta handik Santa Barbara azpiko Barriolara joango gara. Segidan Hernaniko Portu auzoko Zubeldiatarren Egaña-Txikira inguratuko gara eta atsedean txiki bat hartu ondoren Donostia aldera bideratuko gara. Bukatzeko Bilandegitik Erbetegi-Etxeberrin bukatuko dugu ibilaldia. Bertan, meriendatxo bat antolatu dugu festa giroan eta txalaparta joaz bukaera emango diogu ekitaldi honi. Eguraldi txarra egingo balu, bukaera Hernaniko Atsegindegi plaza estalian egingo genuke.

Maiatzaren 17, asteartean Biteri Kultur Etxean **Txalaparta Festa 25 urtetan** erakusketa inauguratuko dugu. Ekitaldi honetan **Hernaniko Txalaparta Festa, 1987-2001** liburua – DVDa aurkeztuko da.

Maiatzak 19, ostegunean **txalaparta eta zinea** uztartzen duen Juan Aizpitarteren Chaluparteo...” eta “Ticzag” laburmetraiak proiektatuko dira. Ticzag proiektzioa zuzeneko musikaz izango da.

Maiatzak 20, ostiralean, Euskal Herriko eskenatoki askotan aurkeztu ondoren, Hernaniko Txalaparta Eskola inguruan sortutako **Ttakun ttan ttakun** emanaldia ikusteko aukera izango dugu. Ikuskizun honetan Txalaparta, dantza, argiak eta irudiak erabiliz, txalapartaren historia hunkigarri eta eder bat kontatzen da. Gauean Kontrakantxa Gaztetxean **Txalaparta party aparta** txalaparta+disco emanaldian DJBarruk diseinatutako txalaparta elektronikoa estreinatuko da.

Maiatzak 21, larunbatean **Txalaparta Festa**. Hau, goizean hasita egunez ospatuko dugu. 25. Txalaparta Festaren zilarrezko edizio honen Jaialdi Nagusirako aurreko ediziotan parte hartu duten taldeak gonbidatu ditugu. Arrazoi ezberdinenagatik denek ezingo dute etorri, baina pasa diren talde horietako asko baieztatu digute etorriko direla eta parte hartuko dutela. Besteak beste gurekin izango dira Saustako Zuaznabartarrak, Erbetegi Etxeberriko Goikoetxearrak eta Izeta, Irungo txalapartariak, Usurbilgo Kirikoketa taldea, Sestaoko Txalaparta Eskola, Araiako txalapartariak, UTT Uharteko Txalaparta Tailerra, Tuterako Txalapartariak, BTT Baigorriko Txalaparta Taldea, Gasteizko Txalamako Taldea, Tarragonako Txala taldea, Madrilen Txalaparta taldea...

EL CHALUPARTEO; CHALUPARTEROS O CHALUPARTARIS DE CHINGUDI

Aspaldiko kondaira batean oinarrituta, dokumento honek ikusleari txalapartaren sorrera euskal kostaldean kokatzen duen teoria bat azaltzen dio. Fikziozko fabula baten gisa, komiki moduan, unzia soinu-tresna eta erresonantzia kaxa bezala baleei deitzeko nola erabiliko litzatekeen irudikatzen du. Untziaren egiturak goruntz eta beheuntz igortzen ditu uhinak, airera eta uretara, atmosferara eta ozeanora. Dokumentalak hasieratez errito baten berriztatzea agertzen du.

TICZAG IMPRO VO

Gaur arte egin ez den proiektu honek Juan Aizpitarteren Ticzag bideoa berriro hartu eta zuzeneko inprobisaziozko topaketa musikal baten bidez filmaren ikuspegi berri bat ematea proposatzen du. Jatorrizko soinu-bandan Juan Mari Beltranen txalaparta sartzearen arrazoia mundua ohol/egur baten gainean zeharkatzen duen skater baten gora beheetan oinarritua zegoen. Bere uhin moduko ibilerak gertakizunari erritmoa jartzen zion. Erkiziak grabatzen mugetaraino prozesatutako txalapartak ibilitako tartea eta une dramatikoak azpimarratzen zituen.



Hurrengo saioan irudi mugimendua oinarritzat hartuko dute forma eta kolore partitura baten interpretazioan entzuleak erne edukitzeko. Zuzenekoa eta irudiak denboraren gainean kontatutakoa elkarteak ikuslea eta musikaria bidai berdineko partaide egin nahi ditu, ia aktoreak paisaia lehenengo aldiz zeharkatu zuenean bezala.

Zuzeneko musikariak:

Juan Aizpitarte, Xabi Erkizia, Iñigo Lurgain, Lara Mitxelena, ...

“Ttakun Ttan Ttakun”

Txalapartaren soinetatik egindako bidai da. Bidai magiko honetan, Juan Mari Beltran eta bere ekipoak memoriaren lurralde urrunenetara eramango gaituzte, imajina ditzakegun txalapartaren erritmo eta aukera guztietan, irudi, dantza eta argi-itzen joko zoragarrien bitartez.

Kirikoketatik hasita —baserrietan sagar-jotzearen hiruak egiten zen joaldiaren irudikapena—, Elorrioko kanpai-joleek egiten dituzten hotsetara (gaur egun galtze bidean dagoen ohitura zoragarri hura). Abereak neguan elikatzeo erabiltzen zen ote-jotzearen joaldia ikusiko dugu, edo garai batean etxe berriari gailurra jartzearen ospakizunetan palanka, haga eta zizelekin jotzen ziren “tinbilin-ttanbalan” soinu ederrak.

Jon Mayaren koreografiak eta Mireia Gabilondo zuzendariaren eszenaratzearekin batera, joaldi tradizionalak soinu eta espresio berriekin nahastuko dira, bikote, hirukote eta laukotean egindako joaldi bereziekin adibidez, edota ahots joko eta poesia hutsez beteriko ikuskizun honetan.

Txalapartariak: Juan Mari Beltran, Ander Barrenetxea, Ixiar Jauregi, Aitor Beltran, Lara Mitxelena.
Dantzariak: Jon Perez, Nagore Indakoetxea.

Sonorizazioa: Gorka Irastorza

